

## Omenaldia Eneko Gorostidiri

Baldintzapean  
dago aske ▶ 4



ESTHER LARRAÑAGA ▶ ALDUNDIKO GIZARTE POLITIKAKO DIPUTATUA

## «Kostu ekonomiko handiak ditu Tolosako Gerontologikoak»

**DESOREKA** ▶ Gipuzkoan desoreka handia dagoela eta irtenbidea erabilpena aldatzea dela dio

**LANGILEEK** ▶ Funtzionarioek lanpostua bermatua dutela dio; besteen kasua «zailagoa» dela ▶ 2



Esther Larrañaga. JOXEMI SAIZAR



## Mailegu eta erabiltzaile gehiago izan dira 2004an udal liburutegian

**IBARRA** ▶ 2004an udal liburutegiak emaitza onak izan ditu: mailegu eta erabiltzaile kopurua igo egin da. Urteik urtera maiztak hobetzen ari dira. Erabiltzaileei begiratuta, gazteek helduek baino euskarazko liburu gehiago hartu dituzte. INIGO TERRADILLOS ▶ 6

TOLOSA ▶

## Koma musika taldeak «estreinaldi mundiala» du gaur Bonberenean

Azken diskoa aurkezteko biraren lehen emaldia izango da 22:30ean ▶ 3

## VILLABONAKO HEZKUNTZA PUBLIKOA

JANGELA • GARRAIOA • ORIENTAZIOA • GURASO ESKOLA



**Fleming Ikastetxea.**  
Haur Hezkuntza Arroan (2-6 urte)  
Lehen Hezkuntza Arratzainen (6-12 urte)  
Tel.: 943 69 35 12 • Tel./Faxa: 943 69 1413  
012277aa@hezkuntza.net

Matrikulazio epea:  
Otsailaren  
14tik 25era



**Ernioea Ikastetxea.**  
Derrigorrezko Bigarren hezkuntza  
Arratzainen (12-16 urte)  
Tel.-faxa: 943 69 37 33  
012952aa@hezkuntza.net

LEITZA ▶

## Nafarroako Bertso Txapelketa dute Riañok eta Elosegik

Goizuetako udaletxean ariko dira finalurretan 18:00etan ▶ 7

ESTHER LARRAÑAGA ▶ FORU ALDUNDIKO GIZARTE POLITIKAKO DIPUTATUA

# «Tolosako eredia Gipuzkoa osora zabaltzeko %75 igo behar dugu aurrekontua»

## Zentro Gerontologikoaren itxieraren arrazoiak eman dizkio ezagutzera HITZAri

JOKEMI SAIZAR

Donostiako Kursaalaren, unitate geriatrikoen zuten jardunaldi batzuen atsedenean hartu du tarte Esther Larrañaga Gipuzkako Foru Aldundiko Gizarte Politikako diputatuak HITZAren egoteko.

### Nola iritsi da Tolosako Zentro Gerontologikoaren itxiera?

2003ko uztaian hartu nuen ardur berria eta Gipuzkoa gizarte zerbitzuen alorrean desoreka handiak zeudela ikusi nuen. Biztanlegoaren %18ak 65 urte baino gehiago du eta 2020rako %25 izango direla kalkulatu da. Besteen mende bizi behar duten 22.000 pertsona daude. Familia bilakatzen ari da: gero eta unitate txikiagoak, gero eta emakume gehiago lanean... Gero eta zailtasun handiagoak daude pertsona horiek zaintzeko. Oreak bilatu behar da Gipuzkoa osoan eta Tolosan desoreka handia dago.

### Zertan?

Azterketa sakona egin dugu. Alde batetik baldintza arkitektonikoak ez dira egokiak, dekretua ez dute betetzen. Edozein aldaketa egiteko plazak murriztu behar dira. Bestalde kostu handiak daude, normala baino %96 garestiagoa da Tolosako zentroa. Erabiltzaileen heren bat kanpotarra da. Etxe babestuen falta dago Tolosaldean. Urtarrilaren 18an autonomia osoa duten 11 pertsona zeuden bertan, dependienteak diren lekuak okupatzen. Hori berregokitu egin behar da. Irtenbide bakarra erabilpe-

na aldatzea da: etxe babestuak egitea eta Jesusen Zerbitzarietako eguneko zentroan plaza gehiago jartzea —9tik 12ra pasatuko dira—. Oraindik batzbestekotik gora geldituko da Tolosaldea.

### Beharra badagoela ikusten da.

Beharrak kolpetik ez dira sortzen, pixkanaka doa dependientzia handitzen: etxeko laguntza dago lehendabizi, gero etxe babestuak, eguneko zentroa eta azkena egoitza da, gaizki daudenentzat. Azken hauek ez dute hain beharrezko herriaren erdian bizitzea, baina etxe babestuetakoek bai.

### Zentroak beste zerbitzu batzuk ere ematen ditu. Zentro soziala eta jangela, adibidez.

Bai. Horiek Udalararen ardurara eta proposamena zerbitzu horiek ematen jarraitzea da, gure laguntzarekin.

### Kostu ekonomikoa mediatik %96 gorago dagoela diozu. Hori ez da egun batetik bestera sortzen.

Inersotik transferitutako zentroak dira eta gabezia batzuk dituzte: ez ziren pertsona dependienteentzat egin, arkitektonikoki desegokiak dira, pertsonal adiletik oso goitik daude —Tolosan erabiltzaileko langile bat zegoen—. Oreak mantendu behar da. Ezinezkoa da Tolosan eguneko 100 eurotik gora kostatzea pertsona bat eta beste zentroetan 52 euro.

### Zein da gaur egun egoera?

Urtarrilaren 21ean bertan bizi ziren familia guztiekin hitz egin genuen. 20 batek Tolosatik kanpoko egoitza bat eskatu zu-

### KOSTUA

«Kostu ekonomikoa handiak zeuden Tolosako zentroan: erabiltzeko bakoitzeko langile bat zegoen»

### LEKU ALDAKETAK

«Ulergarria da leku aldaketak dramatikoak izatea, bigarren etxea da beraientzat eta maitasun handia diote»

### LANGILEAK

«Funtzionarioek lanpostua bermatua dute, gehienek Donostian edo Aldundiko postuetan»

ten eta beste guztiek Tolosan gelditu nahi dute. Oraingo 7-8 leku aldaketa egin dira, eskatu duten egoitza errespetuta eta langileen laguntzarekin. Horiek behin-betikoak dira. Iurrelaren 13 plaza libre daude egun. Astero aztertuko dugu egoera eta leku aldaketak pixkanaka egingo dira. Ezingo denei behin-betiko destinoa eman. Tolosara itzultzeko aukera izango dute epe motzean, Iurrelaren edo San Cosme y San Damianera. **Leku aldaketetan nahiko egoera dramatikoak ari dira gertatzen.**



JOKEMI SAIZAR

Ulergarria da, bigarren etxea da beraientzat eta maitasun handia diote.

### Nola geldituko dira langileak?

Ez da zuzenean nire gaia. Arduradunek enpresa batzordearekin hitz egin dute. Funtzionarioek lanpostua bermatua dute. Eibarrera ez zuten joan nahi. Gehienek Donostian eta Aldundiko postuetan izango dute lana.

### Eta besteak?

Horien zailagoa da mantentzea. Azken finean, enpresa batzuetako langileak dira.

### Zein epetan itxiko da zentroa?

Ez dago eperik, baina oso luze ez da joango.

### Ekimen pribatua ari al da bultzatzen Aldundia?

Gaur egun 5.000 plaza daude Gipuzkoan eta %91 Administrazioak kontzertatuak dira —%87 Aldundiak, besteak udalek—. Legealdi bukaerarako beste 460 plaza gehiago izango dira. Oso plaza pribatu gutxi daude. Zentro pribatuek ere plaza gehienak kontzertatuta dituzte. Tolosako eredia Gipuzkoa osora zabaltzen badugu, gure departamenduaren aurrekontua %75 igo beharko dugu. 123 milioi euroko aurrekontua dugu, ia %14 igo da. Azken sei urteotan goigera garrantzitsuak izan ditu. Dependientziei lotutako programetan gure aurrekontuaren %60 dihoa. Esfortzu berezia ari gara egiten, baina erizpide batekin, leku guztietan zerbitzu bera emanez.

hitza **txokoa** lagunen

HITZAren laguntzaile izan nahi baduzu, deitu

943 30 43 46  
(8:30 / 20:30)

## ‘Lagun ezazu HITZA laguntzen’

Astebukaera honetan **Leidorren** emango den ‘EL AVIADOR’ filmerako 2 sarreraren irabazlea:

**ANA AIERBE OTEGI** HITZAren harpidedun laguntzaile tolosarra.

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZA laguntzen duten harpidedunen artean zozketak astero

MUSIKA ▶

# «Estreinaldi mundiala»

## Bonberenean joko du gaur, estreinakoz, Koma taldeak; azken diskoa aurkezteko Euskal Herriko birari ekingo dio

LEIRE MONTES

*Sinonimo de ofender* azken diskoaren aurkezpen biran murgilduta dago Iruñeko Koma taldea; Espainian aritu ondoren, bihar eskainiko du lehen-dabiziko kontzertua Euskal Herrian. Eta Tolosako Bonberenean aukeratu du horretarako. Gogotsu datoz iruindarrak, jendea aztoratzeko prest: «Estreinaldi mundiala izango da», erantzun dute, ozen eta tinko, Hitzak egindako telefono deiarri.

Estreinakoz igoko dira gaur, 22:30ean, Bonbereneako taula gainera. Tolosan izanak dira, baina makina bat urte pasatu dira ordutik, eta lehen aldian erabiltzeko eratorriko dira berriro Koma-koak: «Frutoan, edo txosnetan, edo kalean... Nonbait jo genuen Tolosan, urte mordoa dela, eta ez dut ondo gogoratzen. Baina ziur nago jendeak erantzun egingo duela», azaldu du Rafa Redin taldeko baxujoleak.

Natxo Zabala gitarrajoleak Bonbereneako lagunak ezagutzen ditu; etxekoek animatu zituzten Iruñekoak Tolosara etor-



Koma taldeko kideak; 22:30ean joko dute Bonberenean. HITZA

zitezen: egindako proposamena gustatu, eta bira hemen hasia pentsatu zuten nafarrek.

*Sinonimo de ofender* (2004) azken diskoko lanak joko dituzte, batez ere, gaurko kontzertuan: *Imaginelos cagando*, *Pensamientos funebres*, *La chuleria*, *Ven que no te va a doler*, *Baga Biga Higa*... Baina beste diskoetako kantak ere izango dira entzungai Bonberenean: «Disko berriko kantak gain, gure ibilbideari erre-pasoa egin nahi diogu. Denetik entzuteko aukera izango duzue. Estreinaldi mundiala izango da, eromena», dio Redinek.

Material berriarekin ariko dira, gainera: «Diru dezente gastatu dugu, baina merezi izango duela uste dugu. Ea jendea gustura uzten dugun».

### KONTZERTUA ▶

**Taldea.** Koma.  
**Kideak.** Brigido Duke (ahotsa eta gitarra), Nabxo Zabala (gitarra eta kora), Rafa Redin (baxua eta kora), eta Juan Carlos Aizpun (bateria).  
**Eguna.** Gaur, larunbata.  
**Ordua.** 22:30.  
**Tokia.** Bonberenea.

GIZARTEA ▶

# «Gezur asko esan» direla dio neskaren erasoan salatu duten gaztetako batek

## «Esaten ari diren gezur sortei erantzuteko» oharra bidali dio HITZARI

ERREDAKZIOA

Ustez 15 urteko neskatila bati «mehatxu egiteagatik» eta hura «erasotzen saiatzeagatik» 14 gazte identifikatu zituen Ertzaintzak, Tolosan. «Dena ikusi eta gertu egoteagatik» uestez «inplikaturik jo» zuten horietako bat harremanetan jarri da Hitzarekin, «hedabideek esan dituzten gezur sortei erantzuteko».

Haren esanetan, ika-mika ez zen mutil batengatik hasi, «bestelako delituengatik» baizik: «Gazteak neskaren etxera joan ziren, tabakoa, dirua eta haxixa lapurtu zielako». Gaztea «bere lagunak onena» deitzen duen horri erasotzen saiatu» zen, eta ama «gauzak kon-

pontzeko ezer ez» zuen egin. Hitzari bidalitako ohar horretan esandakoaren arabera, «neskaren etxera lau gazte joan ziren, eta besteek ez zuten zerkusirik; beste hiru zeuden, adin nagusikoak, eta ez zeuden inplikaturik. Denak zaku berean sartzen baditugu bai zenbaten duela 14. Zergatik inplikatu nahi dute jende gehiago?».

Bestalde, gaztearen ama beste gazteei irain gogorrek esan zizkiela salatu du: «Ume mukizuk» deitu zien, eta jo egingo zituela mehatxatu. Zergatik ez da hori hedabideetan agertzen? Gaia *bullying* balitz bezala ari dira erabiltzen, eta ez da horrela. Neska hori koardila horrekin aterata da askotan, eta beste hainbat iskanbi-

latan ere inplikaturik egon da, horietako bat Tolosako kale batean. Gainera, bere laguna askotan iraindu du».

Ikastetxeari dagokionean, ama esaten duena (prentsa-rekin ondo gelditzeko) dela dio: «Daz Ibarrako neska batek irainak jasan behar izaten zuten etengabe, eta ez entzutearen eraginekin zuten. Horrek bai pasatu zuela gaizki, ikastetxer aldatu behar izan baitzuen».

ENERGIA ▶

### Tolargiren azterketak instalazioetan

Potentzia mugagailu kaxa behar bezala instalatuta eta prezintatuta duten ikusteko, Tolargiko teknikoak bezeroen instalazio elektrikoak etxek etxe ari dira aztertzen. Era berean, instalazioa kontratatutako potentziarekin bat datorrela bermatuko dute horrela. Azterketa doakoa da. Informazioa jaso nahi duenak 943 65 00 16ra dei dezake.

HEZKUNTZA ▶

### Aurrematrikula zabalik Udal Haur Eskolan

Udalaren Haur Eskolak martxan du 2005-2006 ikasturteko aurrematrikula. 12 ordurik irekitzen dute, 07:30etik 19:30era, eta lau txanda daude aukeran: egun erdia goizez (07:30-12:00); egun erdia goizez, bazkaria barne (07:30-13:30); egun erdia arratsaldean (14:30-19:30), eta egun osoa. Martxoaren 4a da aurrematrikula egiteko azken eguna. Argibide gehiago Udaleko Euskara eta Hezkuntza Zerbitzuan (Plaza Zaharra 6, 3. solairua 3.2 atea), 943 69 74 53 eta 943 65 44 66 telefono zenbakietan, eta Haur Eskolan bertan (Elkano, 16. Berazubi).

HEZKUNTZA ▶

### Matrikula garaia herriko ikastetxetan

Herriko ikastetxeetan zabalik da 2005-2006 ikasturterako matrikulazio epea. Informazio gehiago nahi duenak honako telefonotan jasoko dituzte argibideak: 943 65 10 63 (Samaniego), 943 67 39 48 (Hirukide Gainbarri), 943 65 10 27 (Hirukide Jesuitinak), 943 67 03 11 (Hirukide Eskolapioak), 943 69 71 22 (Laskorain Usabal) eta 943 69 71 27 (Laskorain Sakramentinoak).

XAKE ▶

### Tolosaldeko Eskolarteko Txapelketa, amaitzear

Bihar jokatuko dute azken jardunaldia; Gipuzkoako finalean nor ariko den erabakiko da

ERREDAKZIOA

Tolosaldeko Eskolarteko Txapelketaren hirugarren jardunaldia jokatu zuten asteburuan eskualdeko xakelari gazteek. Ez zen ezustekorik izan, eta Joxe Mujikak (Uzturpe-Ibarrak) jarraitzen du lehena kade-tetan, Jokin Mediak (Hirukide-Tolosa) infanteletan, Xabier Correderek (Jesusen Bihotza-Villabona) alebinetan, Aitor Villanek (Jesusen Bihotza-Villabona) benjaminetan, eta Oihana Etxenik (Anoeta Ikastola) nesketan.

Hurrengo postuetan izan dira aldaketak: alebinetan, Aitor Alkorkak (Jesusen Bihotza-Villabona) berreskuratu du bigarren postua, eta Aimar Intxaurrondo (Samaniego-Tolosak) da hirugarren. Amaia Ugartemendiak ere aurea hartu dio Sara Zabalarari (biak Tolosako Laskorain ikastolak). Benjaminetan, Mikel Muguruzak (Pello Errota-Asteasu) sendo jarraitzen du aurrera, eta bigarren postua igo du; Danel Intxaurrondo (Samaniego-Tolosak) du atzetik.

Bihar, laugarren eta azken jardunaldia jokatuko dute Tolosaldeko neska-mutilek. Bertan erabakiko da Gipuzkoako finalerako nor sailkatuko den.

### Gipuzkoako Ligan, berdindu

Bestalde, Gipuzkoako Ligako bosgarren txandan, Tolosa-Ibarrakoa xake taldeak bina berdindu zuen Debako San Roke taldearen aurka. R. Etxeberriak eta J. Barojak irabazi egin zuten.

**ARAMBURU**

**Salgai (Ibarra).** Pisu zoragarria Euskal Herria kalean. Garaje ibida aukeran.

**Salgai (Tolosa).** Pisu ia igogailuarekin Laramendi kalean, 112 m<sup>2</sup>. Berrtua.

**Salgai (Tolosa).** Pisu handia Gorosabel 40ean. Garajea aukeran.

**Salgai (Tolosa).** Pisu ia igogailuarekin Laramendi kalean, 30.000.000 pta.

**Salgai (Tolosa).** Lokal komertziala San Frantzisko pasealekuan 85m<sup>2</sup>.

**Alokatzeko (Tolosa).** Lokal komertziala Erremendi kalean.

**Alokatzeko (Tolosa).** Garajea Pedro de Tolosa kalean.

**943 65 17 13 / 677 46 09 16**

Betinalai

jateetxea

Garaian garaiko janariak

Arraikiatan berezia

© 943 67 33 81 / 943 67 19 20 • Erremerenti kalea, 16 • 20400 TOLOSA

## VILLABONA ▶

## Aizkardik ibilaldia atzeratu du hilaren 27ra

Igande honetarako antolatutako ibilaldia bertan behera utzi du Aizkardik. Mendizale elkarteak ohar batean azaldu duenez, «eguraldiaren iragarpena eta aurreikusiriko errepideen egoera kontuan hartuta» atzeratu egingo da Salbada mendilerroa egiten behar zuten ibilaldia hilaren 27ra. Ibilaldia *Euskal Herriko hiriburuak* uztartuz egitasmoaren baitan dago.

## VILLABONA ▶

## Behar-Zanako pilotak gaur Amasan

Udaberri Txapelketaren partidak jokatu dituzte Behar-Zana elkarteak pilotariak gaur Amasako pilotalekuan. Lehenengo partidaren hasita, Behar-Zanako kadeteak, eskuz binakako sailan Ataunen aurka ariko dira. Villabonako elkarteak nagusiek 13:15ean hasita izango dute partida, paleta larruzko sailan, Andoaingo Gazteleku taldearen aurka.

## VILLABONA ▶

## 'Los Increibles' filma bihar Gurea aretoan

Denboraldi honetan egiten ari den duan eta izaten ari den arrakasta ikusita, Gurea aretoa haurrentzako zinema eta antzerkia programatzen ari da igandeetan Udala Kultur Batzordea. Bihar *Los Increibles* filma ezaguna ikusteko aukera izango da, arratsaldeko 17:00etan hasita. Filma gazteleku emango da eta sarrerak 2,5 euro balioko ditu.

## ASTEASU ▶

## Batasunak «ezetz bozkatzeko» deialdia egin du

Bihar egingo den Europako Konstituzioaren inguruko erreferenduma dela eta Asteasuko Batasunak ohar bat helarazi du Ezetzaren Aldeko Ekimenarekin bat eginez eta Konstituzioari «ezetz bozkatzeko» eskatuz. Bestalde, oharrean azaltzen duenez, Asteasuko Batasunak bozkatzera joaten direnei EHNA agiria erabiltzeko deialdia luzatzen die.

## ASTEASU ▶

## Bi mintegi egingo dira KZgunean etzi

Asteasuko KZguneak antolatu, etzi, astelehena, mintegi egingo dira. Arratsaldeko 16:00etan hasi eta 20:00etara bitartean egingo dira bi mintegiak. Horietako bat Adobe Acrobat Reader programaren inguruan izango da. Beste mintegian, interneten inguruko, KZguneko foroak eta FAQ-ak jorratuko dira. Kultur Etxean dago kokatuta KZgunea.

## ENEKO GOROSTIDI ▶ PRESO OHIA

## «Burua eginda nuen epaiketa arte espetxean egongo nintzela»

Eneko Gorostidi billabonatarak aste bete pasatxo darama baldintzapean aske; gaur arratsaldean egingo diote omenaldia herriko Berdura plazan

IMANOL GARCIA

Eneko Gorostidi billabonatarak baldintzapean askatu zuten hilaren 9an, 50.000 euro ordainduta. Soto del Real espetxean hamar egun eta hiru hilabete inguru eman ditu preso. Gaur arratsaldean omenaldia egingo diote herrian arratsaldeko 18:00etan, Berdura plazan. Ondoren afaria egingo dute Sarasola sagardotegian 200 lagunetik gora.

**Nola bizi izan zenuen ongietorria?**

Urduri nongoen, denak inguruan eta ni erdian. Ordu horiek izateko gainera jende pila zegoen. Ez nuen espero hainbeste jende egotea.

**Eta gaur omenaldia duzu.**

Esan dieten gauza bakarra da motza egiteko. Eta azkenekoa komentatu didatena da ordu-

bete edo iraungo duela... Gero afaltzera joango gara eta pentsatzen dut giro polita izango dela. Eskertzen diet guztiei: lagunei, gogoratu dienei, idatzi dutenei...

**Baldintzapean askatu ondoren, zein egoeratan gelditzen zara?**

Orain epaiketaren zain nago. Oraindik falta da prozesamendua eta ondoren eskaera fiskala egitea. Okerrena jota ere, suposatzen da fiskalak eskatzen duena baino gehiagoko zigorrak dudala izango. Hala ere, oraindik luzerako joango da epaiketa eta beraz, horren zain baina presarik gabe behintzat. **Espero zenuen baldintzapean kartzelatik ateratzea?** Dagoeneko ez nuen espero. Hirugarren eskaera egin zen eta atzera bota zuten. Lehenengo atxilotu bezain pronto izan zen. Bigarrenengo sei hilabetera eta

bete urtebetera inguru. Orain fiskal berri bat jarri dute eta horrek rebisatu edo egin zuten eta Iñigo Iruin nire abokatuari esan zion aldeko txostena zegoela eta kalera aterako nindutela. Harrituta jaso nuen berria. Epaiketa arte han egongo nintzela burua eginda nuen.

**Atxiloketa nola gogoratzen duzu?**

Sarekada egin zuten astelehenera astearterako gauean. Goizean esnatu eta enteratu nintzen eta gero ni atxilotu ninduten eguerdian. Villabonan ikusten genuen jende arraroa. Egoera ez da errazena. Joka ez ziren gehiegi grinatu, gehiago izan zen tortura psikologikoa edo zuria: azkenean nekatuta zaude eta jokatzeko dute bururakin; ez nuen lo egiten edo ez jaten, badaezpada.

**Nola izan da preso eman duzu denbora?**

Han denetik dago. Kondena luzeak espero dituztenak, buru aldetik indartsu daudenak edo beste batzuk ez hain indartsu. Ez da izan ni pentsatzen nuen bezala, hau da, funtzionatzeko erak. Hasiera batean egoerara egiten ematen duzu denbora. Gauean une batzuk badaude komisarian gertatutakoak gogoratzen hasten zarena: zer esan dudana, zer ez, eta buru jaten hasten zara. Hasiera ez da hain gogorra dena berria delako eta, adibidez, Soto del Realen sartu nintzenen modulu berdinean beste hamar euskaldun zeuden. Gero, askatasun eskaerak egiten hasten direnean, nahigabe ere pentsatzen duzu aukerarik dagoela, eta hori okerragoa izan daiteke. Hirugarren eskaeran ezezkoa jaso ondoren, pentsatzen nuen epaiketa arte egongo nintzela.



I. GARCIA

**Urte eta lau hilabete espetxean egoteak zer kendu dizu?**

Kendu... askatasuna. Horrek gauza asko suposatzen ditu. Orain askoz garrantzi handiagoa ematen diet gauza txikiak: zure ohean lo egitea, arraultza prejitu ondo eginak, norbaiten keinu bat... horrelako detaile txikiak.

**Kolektiboko beste presoekin harremanak izango zenituen.**

Bai, gure arteko giroa oso ona zen eta horrek asko laguntzen zuen. Animoak bidaltzen dizkiet, orain borrokaldean dardelako Euskal Herrira etortzeko, hiru arrazoiengatik: estatus politikoa errekonozitu dedin, preso bakoitzak bere herrian egon behar duelako eta oinarriko eskubide guztiak errespetatuak izan daitezen.

hirukide  
villaberri  
jaskolain  
jaskolain  
www.hirukide.org

KALITATEZKO HEZKUNTZA

LASKORAIN IKASTOLA

'Kalitateko Heziketa Euskalduna eta eleanitza'

www.laskorainikastola.net

Euskaraz bizi  
Euskadi 2004  
tolosa@ikastola.net  
Tel.:943 697 122

## GUTUN@K ▶



▶ izena eta herria adierazi; HITZAK gutunak mozteko eskubidea du

## Europa neoliberal eta txikitzaileari ez

«Proiektu europarra» garraioei dagokienez azpiegitura plan zabal-zabal batean oinarritzen da: Sare Transeuroparrak, alegia. Merkatu bakarra eta globalizazio ekonomikoa bultzatzeko ezinbestekoak omen diren garraio azpiegitura 600.000 milioi euro zahutu asmo dituzte 2020 urtera bitartean. Europako Batzordeak eta Europako Industrialarien Mahai biribila derituz lobbyak Europa osoan 30.000 km-ko AHT sarea eraikitzea deliberatu zuten 1984an; linea berriak nahiz gogorki berregokiturikoak tartekatzaren bitartean sare horrek eragin bor-

ritzak ekartzen ditu berekin kalte-uriko lurraldeetan. Sare Transeuroparrenean planak bestalde 12.000 km autobide berriren eraikuntza aurreikusten du lehenengo fase batean soilik, baita aireportuak zabaltzea, superportuak eraikitzea eta jarduera logistikoetarako gune erraldoiak hedatzea ere. Hortaz, «proiektu europarrak» garraioen izugarriko gorakada dakar berekin. Europar garraio sistemak eragindako kalteak larriagotuta. Horregatik, Sare Transeuroparren egitasmoek oposizio nabaria sortu dute herrialde guztietan, batipat Euskal Herria bezalako lurraldeetan, non merkatu bakarra abian jartzearekin batera eragindako merkantzien erokeriazko mugimenduak azken hamarkadan jada ingurugiroan eta gizarte arloan kalte hazkorrak eragin dituen.

Azpimarratu nahi dugu ingurugiroari eragindako kalte larriez gain, arlo sozio-ekonomikoari eta kulturalari ere gogor erasotzen diotela azpiegitura hauek.

AHT Gelditu! Elkarlaneko 50 lagunek osaturiko ordezkartza bat tek Bruselara jo zuen joan den apirilean, hain zuzen ere Europako Erakundeei AHTren egitasmoaren inguruan euskal gizartearen dagoen desadostasuna zabalaren berri emateko eta Europako Batasunak proiektua Sare Transeuroparren lehentasunezko zerrendan mantentzeko Euskal Herriko agintarien inposatze-egitasmoari laguntzen diola salatuz.

Horregatik, AHTren egitasmoak Europako botereguneetan hartzen diren erabakiekiko erakusten duen erabateko menpekotasunak, errebes galanta ekarri zion duela

urte bete Eusko Jaurlaritzari, Europako Batasunak egitasmo hau berehalakoan egitekoak diren azpiegitura-lan handien Quick Start zerrendatik kanpo utzi zuenean.

Hartara, Jaurlaritzak egitasmoaren lanak lehenbailehen abian jartzeko azeleragailuari sarkatu diola salatzen dugu, Y-aren kinka larriaren jakitun delako. Eta ez hori bakarrik; gainera, gure lurraldea *pasabide* gisa indartzeko eta Europako garraio fluxurik handienak bilduko lituzkeen zonaldea bihurtzeko apustu egiten du, hain zuzen ere trafikoen areagotzeak eragindako azpiegituren erabateko saturazioa Europar AHTren alde lehentasuna irabazteko baliagarria izango zaiolakoan. Estrategia honetan kokatzen da Ibarretxek hitzartu zuen Euskadi-Akitania Plana Logistikoaren sorrera.

Horregatik guztiagatik, Tolosaldeko AHT Gelditu! Elkarlanak Europako erakundeek AHTren auzian duten erabateko erantzukizuna salatu eta Itun Konstituzionalari ezetz emateko ekimenarekin bat egiten du, hain zuzen ere ingurugiroan nahiz gizarte arloan eragin bortitzak eragiten dituzten AHT bezalako garraio Sare Transeuroparrak geldiaraztea eskatzeko; eta, aldi berean, gaur egun Europar sustatzen ari den garapen eredu desarrollista eta neoliberala errotik aldatu beharra aldarrikatzen dugu, aldatuta horrek erabaki ahalmena kalteturiko herriei itzulzea eta giza-premiak berdintasunean eta naturarekiko orekan asetzea ahalbidetu dezan.

PATXI EGUILAZ, PATXI ITURRIAGA ETA DAVID MIANGOLARRA (AHT GELDITU!

ELKARLANAREN IZENEAN) ▶ TOLOSALDEA

## ALEGIA ▶ GIZARTEA

# Jai Batzorde berriarentzat jende bila

Bilera irekia martxoaren 3an egingo dute udaletxean, 19:30ean

## NOELIA LATABURU

Alegiako Jai Batzordeko partaideek, herenegun egintza bileran, eta urte askotan zehar lan hau burutu ostean batzordea uzteko erabakia azaldu zuten. Hori dela eta, Alegiako Udaleko zinegotziak eta Kultur Etxeko dinamizatzaileak zeregin hau beteko luketen pertsonen bila hasi dira dagoeneko buru belarri.

Arazo honi irtenbidea aurkitu nahian, bilera antolatu dute, martxoaren 3an arratsaldeko 19:30etan Alegiako udaletxean. Jendea animatu dadila eskatu dute eta bertaratu nahi duen guztia antolatze aldekoa dela deialdia.

Festa Batzorde honen egintza azalduko udarako jaiak antolatzea eta kudeatzea izan ohi da. Aurreko osteguneko izan zen bileraren helburu nagusia, hain zuzen ere, antolaketaren prozesu honetan lehen urratsak ematea zen, baina eragozpenen aurrean, oraindik erabaki guztiak hartzeke daude.

Jai Batzordean parte hartzen zutenak denbora pasatu ahal nekaturik sentitu dira lan hau

aurrera eramaten jarraitzeko eta horregatik auzen bertan uztearen aldeko erabakia hartu dute.

## Herriaren alde lanean

Jendea «belurrik gabe eta gogoz» animatu dadila eskatu dute Udaletik, bai eta Kultur Etxetik, batzordeko lan hau herriaren funtzionamendu egokia lortzeko dela argudiatuz eta, gainera «norbaitek bete beharrekota da». Hau guztiagatik martxoaren 3rako antolatu berri duten bilerara aurkeztera deitu dute.

## ALEGIA ▶ ERAKUSKETA

## Oiertzabalen argazkiak ikusgai

Juan Mari Oiertzabalek Himalayan ateratako argazkien erakusketa dago ikusgai Alegiako jubilatuaren tabernan. Guztira alegiarren hamabost argazki bildu dira bertan eta erakusketa bere azken egunetan da dagoeneko. Oiertzabalek, erakusketarekin batera, bere Nepaleko egonaldia buruzko hainbat hitzaldir eman ditu herrian.



Jubilatueta danda ikusgai Oiertzabalen argazkiak. NOELIA LATABURU

## ALEGIA ▶ ANTZERKIA

## 'Gizonak' antzezlan, bigarren egunez

Ttapa taldeak gaur *Gizonak* izeneko antzezlan taularatuko di bigarren egunez. Atzoko emanaldiaren ostean, gaur ere Alegiako Kultur Etxean, gaueko 22:00etan eskainiko dute euren antzerkia. Antzezleak Maitane Agirre, Ainhoa Zubeldia, Edurne Arraite, Larriz Irazusta, Ainhoa Ezeiza, Eider Zubillaga eta Inma Etxeberria dira. Sarrerak salgai daude hiru eurotan Kultur Etxean.

## ALEGIA ▶

## Eskulan ikastaroen izena emateko epea luzatu dute

Alegiako Kultur Etxean datozen hilabetetik aurrera martxoaren jarriko den eskulan tailerraren izena emateko epea aste bete gehiago luzatu dute eta otsailaren 23a arte zabalitzen da, beraz. Bi talde jadanik sortuak dira.

## ALTZO ▶

## Euskal dantza, eskola orduz kanpo

Altzoko ume eta gaztetxoek aukera izango dute berriro dantzan ikasteko eta aritzeko, izan ere, eskola ordutik at, musikaz gain, jarduerak hain ere eskainiko da datozen astetik aurrera. Oraingoan, Eider Epelde Ibarraiko Alurr dantza taldeko partaide izango da irakasle. Euskal dantza saioa aurtengo ikasturtean ostiral arratsaldeetan izango da.

**ANOETAKO HERRI IKASTOLA**

- Haur Hezkuntza, Lehen Hezkuntza eta D.B.H.
- Kalitatezko hezkuntza euskalduna
- Eguneratua eta irekia
- Denen artean bultzatua eta zuzendua

**MATRIKULA EPEA:**  
**Otsailaren 14tik 25era**

**Matrikulazio Ordutegia:**  
© 943 65 46 13-65 29 32  
9:00-13:00 - 15:00-18:00  
anoeta@ikastola.net

**Irurako Ikastola**

(2-8 URTE)

**'HAZI ETA HEZI HERRIAN BERTAN'**

San Migel, 5 • 20271 IRURUA  
Tel.: 943 69 43 74 • irura@ikastola.net

## IBARRA ▶ MUSIKA

**Reggae jaia antolatu dute gaur Gaztetxean**

Leroy One Stone eta Rash Jab Sound izango dira entzungai 22:30etik aurrera

## I.TERRADILLOS

Gaur reggae jaia antolatu dute Ibarrrako Gaztetxean. Leroy One Stone Jamaikako reggae abeslaria izango da gaurko protagonista. 1985ean ekin zion abesteari hainbat sound systemetan eta 2002an etorri zen Europara, Espainiako Malagara hain zuzen ere. Ez da jamaikar honentzat Euskal Herriara datorren lehendabiziko aldia, 2004a amaitzear zela etorri baitzen Jah Garden House taldearekin. Talde honetan, hainbat herrialdetako jendea batu zen. Gaurko kontzertuan, Ras Jah-B aukera-



Reggae jaia. WWW.IBARRAOGAZTETXEIA.NET

tzalea izango du platoetan Roots soinu konsziente eskaizteko. Guztia gaur 22:30etik aurrera.

## IBARRA ▶

**Liderraren aurka jokatu du gaur Ibarrrak**

Candesa Camargo liderraren aurka lehiatuko da gaur Ibarra areto futbol taldea, Kantabriako Camargo izeneko herrian 17:00etatik aurrera. Talde gogorra da Candesa Camargo taldea jokatu duen ia partida guztiak irabazi dituelarik eta lan zaila izango dute ibarrrak. Ibarrrak jokatu zen joaneko partidaren 3-4 galdu zuen Ibarrrak, eta orain arerioa ezagututa gogor ekin beharko diote aurreko partidako urduritasunak alde batera utzita.

## IBARRA ▶

**Aiton-amonon eskola izango da astelehenean**

Hilabetero bezala, astelehen honetan aitona-amonon eskola izango da. Aurrekoak bezala, Ibarrrako Benito Izagirre kultur etxean izango da hitzordua 10:15etik 11:45era. Kasu honetan ere Maria Jesus Uranga psikologo eta terapeuta izango da gidaria eta sortzen diren zalantzak argitzen saiatuko dena. Ibarrrako herritarren parte-hartzea eskatzen da aitona-amonon eskola berezi hauetan asko izango baitute guztiak ikasteko eta eskaintzeko.

## IBARRA ▶ KULTURA

**2004an mailegu eta erabiltzaile gehiago izan ditu liburutegiak**

Urtetik urtera emaitzak hobetuz doa liburutegia; gazteek helduek baino euskarazko liburu gehiago mailegatu dituzte

## IÑIGO TERRADILLOS

2004. urteak Ibarrrako udal liburutegiak utzi dituen emaitzak onak izan dira eta hobetuz doazela urtetik urtera esan daiteke.

Materialaren kopurutik hasita, handituz doa, 2004an 1.774 ale gehiago zenbatu baitituzte. Maileguri begiratzen badiegu 6.803 egin dira iaz baino 1.361 gehiago. Mailegu hauetan, ikus-entzuteko materialak izan duen gorakada aipatzekoa da, 3.058 izan baitira, pasa den urtean 2.197 izan ziren bitartean. Maileguen %44, 95 izan dira ikus-entzutekoak eta liburuenak, berriz, %55ekoa izan da.

Liburuen maileguri dagokionez, aipatzekoa da, batetik, haurrek eta gazteek helduek baino liburu gehiago hartu dituztela mailegutan, eta bestetik, helduekin konparatuta euskarazko liburuaren kopurua altuagoa dela haur eta gazteetan.

Mailegu eta liburutegiaren zerbitzuak erabili dituztenen kopuruaren gorakada hau urtetik urtera errepikatzen doa: horrela, 1997. urtean maileguak denera 1.217 izan baziren, 2004an 6.803 izatera pasatu dira eta erabiltzaileen kopurua 3.641 izan bazen, 2004an 7.680 izan ziren liburutegian izan ziren herritarren kopurua.

Bestalde, haur eta gazteen artean irakurketa suspertzeko ipuñ kontalari saioak ere antolatuta dira Ibarrrako liburutegian. Haur asko inguratu da saio hauetara, guztira 6 saio egin dira eta 199 izan dira parte-hartzaileak, saio bakoitzeko 33 haur, beraz.



Emaitzak hobetuz doa urtero Ibarrrako liburutegia. I.TERRADILLOS

**2004 URTEKO DATUAK ▶****MATERIALA**

**Material berria.** 1.774 ale (liburu, bideo, Cd eta Cd-rom).  
**Denera.** 15.000 ale.  
**Liburutegiak erosiak.** 1.032 ale.

**Bestelako jatorriak.** Eusko Jaurjaritza, Kutxa, Gipuzkoako Foru Aldundia, beste erakunde batzuk eta irakurleek ekarrikatoak.

**2004KO MAILEGUAK**

**Liburuak.** 3.745.  
**Cd-ak:** 1.516 mailegu.  
**Cd-Rom-ak:** 111 mailegu.  
**Bideoak:** 690 mailegu.  
**DVD-ak:** 741.  
**Denera:** 6.803 mailegu.  
**Eguneko:** 28.

**LIBURUAK**

**2004an:** 2003. urtean baino

500 liburu gehiago mailegatu dira.

**Haur eta gazteek:** 2.029 liburu (%54,18) mailegatu dituzte.

**Helduek:** 1.716 mailegu (%45,12).

**HIZKUNTZA**

**Euskaraz:** 1.529 (%41,20) liburu mailegatu dira.

**Gaztelaniaz:** 2.174 (%58,05) liburu.

**Ingelese:** 42 (%1,12).

**Helduek:** euskaraz %16,67 eta %81,76 gaztelaniaz.

**Haurrek:** %61,29 euskaraz eta %38 gaztelaniaz.

**BAZKIDE ETA IRAKURLEAK**

**Bazkideak:** 749 txartel daude. 70 berri, beraz, 2004an.

**Erabiltzaileak:** 7.680. 2003an baino 471 gehiago.

**GAZTELUKO UDALA****IRAGARKIA**

Bi mila eta bosteko otsailaren batean Gazteluko Udaleko Alkateak emandako Alkatetza Dekretu bidez ondorengo erabakia argitaratzea erabaki zen:

- Ideien lehiaketa** deitza Ostarurako proiektuak aurkezteko. Proiektu hauek, arkitektoen planoak ezezik, ustiapen modalitatea aholkatu (hotela, albergea, ea) eta bidegarritasun ekonomikoaren azterketa azaldu beharko dute. Azterketa hauen barruan azaldu beharko dira gainera, etorkizuneko Udalak egingo duen esleipen lehiaketarako baldintzen inguruko gogoeta, gomendio eta iradokizunak.
- Proiektu guztiak**, honako lerro nagusiek mugatzen duten esparruan kokatu beharko dira:
  - a) Etxe barruan Udalak gaur egun dituen ekipamenduak errespetatu beharko dira.
  - b) Kale maila, taberna, jatetxe eta antzeko zerbitzu publikoetarako erabiliko da.
  - c) Lehen, solairuan ustiatzailearentzako (eta bere familia nukleararentzako) etxebizitza egin behar da.
  - d) Ganbara logelatak erabiliko da, iradokitzen den modalitatean.
  - e) Kanpoari begira, ahal den aldaketa arkitektoniko txikiena eragingo zaio etxeari.
- Proiektuak** aurkeztu nahi dituztenek eraikinareen planoak Udalean eskuratu ahal izango dituzte.
- Proiektuak** Udalean aurkeztu beharko dira martxoaren 4ko eguerdiko ordubiak baino lehen.

**Gaztelun, 2005eko Otsailak 1  
ALKATEA**

**iragarki laburrak ▶**

**Telefonistak.** Harreragileak. Plaza libreak erakunde publikoetarako.

Informazioa doan.

**943 65 01 93 telefonoa.**

**Ostalaritza.** Sukaldari

laguntzaileak, sukaldariak, zerbitzariak. Plaza libreak: eskolako, egoitzak, Eusko Jaurjaritza.

**943 65 01 93 telefonoa.**

**Eraikuntza.** Igeltseroak, peoiak.

Plaza finkoak Gipuzkoako udaletan.

Informazioa doan 943 65 01 93 zenbakian.

**Gidariak.** Plaza libreak: eskolako, Eusko Jaurjaritza, Aldundia.

Informazioa doan. **943 65 01 93.**

**Haur Hezkuntza.** 1.200 plaza. Sarbidea libre. Informazioa doan. **943 65 01 93.**

**Administrazio laguntzaileak.**

Laster sarrerak udal hauetan: Hernani, Usturbi, Irun, Beasain,

Altzo, Bergara, Zorrales, Mutriku, Zizurkil, Mendara, Anoeta.

Informazioa doan. **943 65 01 93.**

**Mantenua.** Elektrikariak, iturginak, soldatzaileak, igeltseroak. Plaza libreak: erakunde publikoak. Informazioa doan. **943 65 01 93.**

**Peoiak,** elektrikariak, iturginak, soldatzaileak, igeltseroak. Plaza libreak erakunde publikoetarako.

**943 65 01 93.**

## LEITZA ▶

**Aurrerak  
Arkixkilen du  
bihar**

Asteburu honetan etxean, Arkixkilen, beraz, jokatzekoa da Aurrera futbol taldea eta 16:00etatik aurrera egiten ere, elurak eragozpenik jartzen ez badio behinik behin. Atzo oraindik elurtua zegoen zelaia eta gauez egin zuen izotzarekin, are gogorago, kristalduta zegoen zorua. Zelaiaren egoera ikusi eta horren araberrakoa izanen da jokatzeko edo ez. Hala bada, oraingoan Uharteko Arkilekoak izanen dituzte aurrez aurre jokorako, Aralar Mendi taldea zehazki. Talde hau aspaldiko ezaguna da leitzarrentzat. Joanerakoan, galdu egin zuen Aurrerak eta aukera hau ordainak emateko baliatu dezakete.

## KIROLA ▶

**Berria Txapelketa  
jokoan, Aurrera  
aurrera doa**

Pilotan jokatzeko ari den II. Berria txapelketan, Aurrera elkartearen ordezkariak final zortzirenetarako sailkatu ziren, ezustekoa emanez, 63 puntu eskuratu zituzten eta. Horrela bada, gaur jokatuko dituzte partidukoak, eta futboleko bezala, kasualitatez, Huarteren aurka egiten ere. Hiru mailetan jokatzeko dute eta honako hauexek dira Aurreraren ordezkariak: kadete mailan Sagastibelza-Madaroaga bikotea, gazteenean Iraola-Iriarte eta nagusienean Onsalo-Betelu. Hiru partiduetako tantoak batu eta puntu gehien eskuratzen dituzten taldeak igaroko dira hurrengo fasera, berriz ere.

## PILOTA TXAPELKETA ▶

**Bengoetxea edo  
Barriola, bietako  
bat finalera doa**

Gaur arratsaldean, 17:00etatik aurrera, jokatu dute finalaurrekoa, Iruñeko Labrit pilotalekuan, Abel Barriola eta Oinatz Bengoetxea leitzarrek, elkarren aurka, hurrenez hurren, aurrean Titin III.a eta atzean Beloki lagun dituztela. Aurrekaririk ez duen gertaera honekin, ziurtatuta dago, azken partidurako txartela leitzar batentzat izatea. Gainerakoan, zaletuek biek irabaztea nahi eta hori ezin izan!

## LEITZA ▶ KULTURA

**Oholtza gainera igo  
eta bertsoan kantari**

Gaur dute finalaurrekoa, Goizuetako udaletxean 18:00etan, Elosegi eta Riaño, Nafarroako Bertsolari Txapelketan



Riaño kantari, Elosegi —ezkerrekoa— jarritako gaiari erantzunez, Maxurrenea Herintzateko bertso afarian. J. ASTIBIA

## JAIONE ASTIBIA

Gaur bertan, 18:00etan hasita eta Goizuetako udaletxean, egiten da finalaurreko bigarren saioa, Nafarroako Bertsolari Txapelketaren baitan eta bi leitzar ariko dira kantari: Migel Mari Elosegi eta Diego Riaño.

Biek hala biek ere lehendabiziko aldian dute. molde horretako saioetan parte hartzen dutela. Riaño txapelketa hone-

tan izena eman zuela eta, Luze ere horretara animatu zuen, izan ere urteak baitaramatzate bertso kantari aritzeko elkarrekin biltzen, denboradaka, baina ia astero elkartzeko dira eta beraien «bertso-eskola» propioa muntatu dute, bertso-gintzan ikasi eta bere arlo desberdinak lantzeko.

Horrela, jenduarrean ez dira gehiegi arituak. Riaño, gehixetago. Orain, berriro, Hernanin

tabernetan jokatzeko den txapelketa irabazi du, eta beste saio batzuk ere egin ditu jenduarrean. Bertso afarian ibili da gehientsuena. Elosegik, bertso afari batzutan parte hartu du, baina oholtza gainetik ez du kantatu orain arte.

Txapelketan izena eman zutenetik, Bertso Ligan parte hartu dute eta bina bertso afarian aritu dira bertsoan, izena eman zuten gainerakoekin batera. Saio hauetan lortu zituzten puntuak arabera, finalaurrekoetara igarotzeko aukera eskuratu zuten, beste 18rekin batera. Horrela hiru finalaurreko egiten dira, bat gaurko Goizuetakoa, eta bakoitzetan lehendabizikoak eta orotara puntu gehien eskuratzen dituzten beste bostek jokatu dute txapela.

Beraz, bertsozaleak elkartu dituen bi leitzar hauentzat, gutxi-asko, gaurkoa da molde hauetako saioetan aritzen diren estreineko aldian. Oholtza gainetik, mikrofonoaren aurrean, jendeari begira, bakarrik edo lagunarekin, gaia entzun, doinua, oinak... erabaki eta kantari hasi.

**Amazabal institutuan geldialdia egin dute**

LEITZA ▶ Amazabal Institutuan geldialdia egin zuten atzo, eta 11:00etatik aurrera ez zuten eskolarik izan. Egun hauetan Madrilen (Espainia) 42 euskal gazteren aurka egiten ari diren epaiketa salatu asmoz, atera ziren kalera eta ikastetxe-atarian elkarretaratzeko egin zuten.

«Gazteen ametsak, desirak, nahiak eta ilusioak antolatuko eta bide emateagatik» 654 urteko espetxe zigor eskariari aurre egingez, epaituak izaten ari direnei elkartzuna adierazi zieten. Hurrengo larunbatean, Bilboko manifestaziorako autobusa antolatuko dutela adierazi zuten. J. A.

## TELEFONOAK ▶

## LARRIALDIK

▶ 112

**Alegialdea.** Osasun z.: 653212  
**Anoetaledea.** Medikua: 65 23 39  
**Asteasu.** Medikua: 69 24 23  
**Berastegi-Elduain.** 68 33 61  
**Bidegoian.** Medikua: 68 11 34  
**Ibarralde.** Osasun etx.: 672411  
**Ikaztegieta.** Medikua: 65 33 29  
**Iruira.** Osasun zentroa: 69 07 20  
**Leitza.** Osasun z.: 948 510800  
**Lizartza.** Medikua: 68 20 77  
**Tolosa.**

▶ Anbulatorioa, larrialdia: 461111  
▶ Gernikako arbola: 00 69 00  
▶ Asunzio Klinikak 67 57 99 - 67 53 90 (larrialdiak)  
▶ DYA: 67 25 36  
▶ Gurutze Gorria: 67 48 88  
**Villabona.** Anbulat.: 00 69 70

## GARRAIOAK

▶ Renfe Tolosa: 65 28 89  
▶ Donostiako autobusa: 36 17 40

## GUARDIAKO FARMAZIAK

**Gaur.** Tolosa. Kale Nagusia 7 (Tolosa). 943 670 648  
Plaza. Elbarren 36 (Leitza). 112

## TOLOSALDEKO HITZA

**Publizitatea.** 661 67 88 18.  
tolosaldean\_publici@tolosaldeko-hitza.info

**Tolosa.** 687 41 00 82 - 687 41 00 33.

tolosa@tolosaldeko-hitza.info

**Villabona-Aizt.** 687 41 00 22.

villabona-aizt@tolosaldeko-hitza.info

**Anoetaledea.** 687 41 00 22  
anoetaledea@tolosaldeko-hitza.info

**Ibarralde.** 687 41 00 32.

ibarralde@tolosaldeko-hitza.info

**Alegialdea.** 687 41 00 34.

alegialdea@tolosaldeko-hitza.info

**Leitza.** 687 41 01 18.

leitza@tolosaldeko-hitza.info

## iragarki laburrak ▶

## LANA

**Saltzailea.** Saltzaile bat behar da, modakoa ez den denda baterako. Egun osorako. Euskaraz jakitea ezinbestekoa. Curriculum Vitae-a bidali argazkiarekin hurrengo helbidera: 157 posta kutxatila (saltzailea), 20.400 Tolosa.  
**Sukaldaria eta tabernaria.** Tabernarako sukaldaria eta tabernaria behar dira. Deitu 15:00etatik aurrera. 943 682 154.

## SALGAI

**Etxea.** Alegiako Larraitx auzoan etxea salgai. 680 57 09 52.  
**Ezkon soinekoa.** Hanibal Laguna diseinatzailearen ezkon soineko adagok salgai. Deitu 615 72 91 99 zenbakira.  
**Estetikako aparatua.** Estetikako aparatua salgai. Deitu: 660 05 76 05.

Harpidedunei banatua ▶ 2005eko otsailaren 19a, larunbata ▶ III. urtea

GAURKO EGURALDIA

goizez



arratsaldez



beroena

09

hotzena

06

BIHARKO EGURALDIA

goizez



arratsaldez



ELURRA ARALARREN



Guardetxe: bai

Albi: bai

Pagomari: bai

Igaratza: bai

Gipuzkoako Foru Aldundia

HITZA-KO BEZEROEN ARRETA ZENBAKIA (zafantzak, harpide egiteko...)

943

30 43 46

AGENDA ▶

DEIALDIAK

**Tolosa.** Karroza eta konpartsen plataformak desmontatu behar dira aste honetan. Ez direnak erabiliko Ferialeku ondoan jarri duten edukiontzi batean bota behar dira. Karroza gordetzea nahi dutenek, izena eta telefono zenbakia utzi behar dituzte.

**Tolosa.** 2005-06 ikasturterako aurrematrikula marbxan du Udal Haur Eskolak. Lau txanda daude: goizez, goizez bazkaria barne, arratsaldez edo egun osoz (07:30-19:30). Argibideak: Udal Euskara Zerbitzuan (943 69 74 53) eta Udal Haur Eskola

IKUSKIZUNAK

**Alegia.** Gizonak antzezlanak. Ttapa taldearekin, 22:00etan.

**Tolosa.** Haur Misiolarien jaialdia Leidorren, 16:00etan: Musika Eskola, Belabietatik kirok elkarte, Laskorain abesbatza, Irurako dantza taldea, Hirukide, Albizturko katekesia, Tolosa CF, Samaniego eta Berastegiko dantza taldea.

KIROLA

GAUR

▶ Irun-Elgeta (Gipuzkoako II. Gomazko Paletako Txapelketa herrikoia. 11:00etan, Asteasuko kiroldegian).



### Holiday zirkoa asteburuan

**TOLOSA** ▶ Holiday zirkoko ikuskizunez gozatzeko aukera izango da, gaur eta bihar, San Estebango aparkalekuan —Ferialekuaren ondoan—. Gaur bi saio eskainiko dituzte, 17:00etan eta 19:15ean; eta bihar hirurik: 12:00etan, 17:00etan eta 19:30etan. Leihatila zabalik da 11:00etatik 14:00etara, eta 16:00etatik aurrera. Zooa ere badute, eta 11:00etatik 14:00etara bisitatu daiteke. LEIRE MONTES

BIHAR

Futbola

- ▶ Aurrera-Aralarmendi (Lurraldeko 1. Maila. Arkixkil Leitza 16:00).
- ▶ Eibar B-Tolosa (Jubenilen Euskal Liga. Unbe Eibar 16:30).
- ▶ Tolosa-Alaves (Kadeteen Euskal Liga. Berazubi 16:30).

- (Euskadiko Kluben Txapelketa. 22 urte azpikoak. Zeanuri 11:00).
- ▶ Segura-Igeldo (Gipuzkoako II. Gomazko Paletako Txapelketa herrikoia. 11:00etan, Asteasuko kiroldegian).
- ▶ Lapuebla-Aurrera Saiaz (Euskadiko Kluben Txapelketa. Jubenilak. Adurtza 10:30).

Areto futbolak

▶ Kokxa taberna-Laskorain (1. Maila A. Zubiaurre 17:00).

Pilota

▶ Joko Alai-Aurrera Saiaz

MUSIKA

**Ibarra.** Reagge festa: Jamaicatik etorritako Leroy one Stone eta Ras Jah b Sound. Gaztetxean 22:30ean.

AIURRI ▶



- Aldizkaria.** Aiurri.
- Zenbakia.** 229.a.
- Orrialdeak.** 28.
- Tirada.** 2.500 ale.
- Gai nagusia.** Aiztondo klasika.
- Beste gaiak.** Astesuarrak munduko ziklo-kros txapelketan, Eneko Gorostidi billabonatarrak aske, nekazariarentzat laguntzak Zizurkilen...
- Argitaratzailea.** Laramendi Kultur Bazkuna.
- ▶ Berria 47, 3. esk. Villabona
- ▶ 943 69 64 50
- ▶ aiurri@topagunea.com
- ▶ www.aiurri.com

GALTAZUNDI ▶



- Aldizkaria.** Galtzaundi.
- Zenbakia.** 208.a.
- Orrialdeak.** 28.
- Tirada.** 5.000 ale.
- Gai nagusia.** Idoia Elozegi artista tolosarra.
- Beste gaiak.** Inauteriak, Korrika, presoen egoera, *Hi, gazte!* berritua, poesia errezitaldia, Kultur balantzea...
- Argitaratzailea.** Galtzaundi Euskara Taldea.
- ▶ Nafarroa, 6. behe. Tolosa
- ▶ 943 65 50 04
- ▶ galtzaundi@galtzaundi.com
- ▶ www.galtzaundi.com

**Tolosa.** Koma. 22:30ean, Bonberenean.

ZINEMA

**Tolosa.** El aviador. Martin

Scorseseren filma. 19:15ean eta 22:30ean, Leidorren. **Villabona.** *Los incribles.* Haurrentzako zinema, gaztelaniaz. Bihar, 17:00etan, Gurean. Sarrera: 2,5 euro.

AGURRAK ▶



AUPA PELLO ETA JULEN!

Aupa mutilak, eutsi gogor!  
 Gogo galanta dugu zuekin sagardotegi bat egiteko. Ruso, Tina eta Luismi.



IEE EUUUP ANDER!

Egun bat gubiagok gelditzen zaik!  
 Denon borrokaekin irabaziko diagu!  
 Aurrera bolik! Xuxurkil, je, je, je.



URTE ASKOAN

Narrea Etxeberria Bengoetxea (Albiztur). Gaur 2 urte. Gurasoen eta etbeokoen partetik.



URTE ASKOAN

Eider Calahorra Murua. Gaur 7 urte. Zorionak eta muxu handi bat.



**HITZA, zorion agurren tarteak**  
 Urtebetetzeak, urrezko etzeiak, ezkontzak, jaiaberriak... zoriontzeko, etorri:  
 HITZAren egoiztetara:  
 Araba etorbidea, 5. behea - TOLOSA  
 Udaletzeko bulegoa - LEITZA  
 Mesedez, argazkia bi egun lehenago ekarri.  
 Mila esker!

BI URTE Egunkaria GABE

EKITALDIA: otsailak 20, igandea, 11:30ean

Andoaingo Martin Ugalde Kultur Parkean



EGUNKARIAREN ALDE elkarteak